

Aldagai soziolinguistikoen bidez aztertuta: Mutrikuko Azentuaren Bariazioa

Beñat Urkiza Sesma

Euskal Filologian lizentziatua

burkiza@gmail.com

Sarrera-data: 2014-10-31 / Onartze-data: 2014-11-28

Laburpena. Azentuaren bariazioa aztertzen hasi ziren lanek korrante berri bat ireki zuten euskal dialektologian. Egun, aldakortasuna aztertzeak hainbat ikerketa eremu zabaldu ditu. Bilakaera honek, askotariko bideak eskaintzen ditu, esaterako: hiri / herri; itsaso alde / baserri alde; zahar / gazte; gizon / emakume... edota denak batera ikertzea. Lan honetan bariazioa lantzea izan da helburua, nolabaiteko aurreiritziak argitzeko asmotan, adibidez: kalean eta baserrietan desberdin hitz egiten dela. Uste horri begiratuta, faktore soziolinguistikoen bidez azterketak egin dira; beti ere, azentuaren araua atera eta hipotesiak argitzeko bidean. Hipotesiak hiru motatakoak dira: azentu sistemarekin lotutakoak, aldagai sozialekin lotutakoak eta aldagai geografikoekin lotutakoak. Xedea, uste horiei argibidea edota erantzuna bilatzea da. Emaitzak galdetegi batzuen bidez lortu dira. Datuak lortzeko, lagina aldagai soziolinguistikoetan oinarritu da, besteak beste: adina, bizilekua eta generoa. • **Hitz-gakoak:** *hizkuntza-aldaera, azentua, aldagai sozialak.*

Abstract. The pieces of research that began to analyse stress variation opened up a new trend in Basque dialectology. Today, the study of variability has opened up many fields of research. This evolution offers a whole range of paths, like city/town; seaside/farm; old/young; man/woman, etc., or the study of them all together. The aim of this work is to explore variation, for the purpose of clarifying prejudices, for example: that people speak differently in the street and on farms. Studies have been made by means of sociolinguistic factors with this view in mind and designed always to deduce the stress rule and clarify hypotheses. The hypotheses are of three kinds: those linked to the stress system, those linked to social variables and those linked to geographical variables. The aim is to clarify or account for these opinions. The results have been obtained by means of questionnaires. To obtain the data, the sample is based on sociolinguistic variables, including: age, place of residence and gender. • **Key words:** *language variable, stress, social variables.*

1. SARRERA

I

Mutrikun biztanleen artean beti esan izan da baserri eremuan eta kalean bizi diren pertsonen artean hizkera desberdina erabiltzen dela. Desberdina dela baieztatzeko atal eta alor zenbait aztertu dira. Hortaz, Mutrikuko hizkeraren bariazioa landuko da lan honetan, baina azentuaren ikuspuntutik.

Ikerlanean aldagai soziolinguistikoak hartu dira kontuan azentuaren aldakortasuna aztertzeko. Autore askok eta Tagliamontek (2006), zehazki, faktore soziolinguistiko batzuen garrantzia azpimarratu dute. Lan honetan hiru hartuko dira kontuan: adina, bizitokia eta generoa.

Lanerako, lagin estratifikatua behar izan da eta pertsona kopuru bati galdetegiak egitea, ondoren emaitzak jasotzeko. Galdetegi dago-kinez, ikerlan honetarako bereziki prestatutakoak izan dira.

Ikerketa, funtsean, lan deskriptibo bat egitea da, lekukotasunei egindako grabaketetatik ateratako datuak interpretatuko direlako. Grabaketak egiteko orduan, lekukotasun bakoitzak azentuerari dagokionez, berak erabiltzen duen forma esan du.

Mutrikuko hizkeraren gainean egindako ikerketa bakarrenetakoa, hizkuntzalaritzaren baitan egindakoa, bakarra ez bada, Jose Agustin Arrietak (1974) egin zuen. Azentuari dagokionean, Gamindek (1998) sakonago aipatzen du bere lanean; gainera, herri eta baserri eremuko banaketa eta guzti. Horrez gain, Andonegik (1996) Mutrikuko azentuaren gainean ere badu lan txiki bat eginda. Hori horrela izanda, lan honen beste xedeetako bat aurretik egin diren Mutrikuko azentuaren gaineko lanak osatzea izan da.

Lana aurrera eramanteko, nagusiki, hiru motatako hipotesiak egin dira. Alde batetik, azentu sistemaren gainekoak; bestetik, aldagai sozialen ingurukoak; eta, azkenik, aldagai geografikoen ingurukoak.

Azentu sistemari dagokionez, 2] araua errespetatzen dela uste da. Bestalde, lexikoan hitz markaturik ez dagoela uste da.

Aldagai sozialen inguruan, generoak azentuan garrantzirik ez duela uste da; adinak, ordea, bai, eta aldagai geografikotan, zonaldeak azentuan garrantzia duela.

2. METODOLOGIA

I

Metodologiaren inguruko azalpenak emateko bost azpiatal egin dira. Modu horretara, lanaren inguruan hartutako erabakien eta egin diren planteamendu desberdinen inguruko informazioa emango da.

Mutrikun biztanleen artean beti esan izan da baserri eremuan eta kalean bizi diren pertsonen artean hizkera desberdina erabiltzen dela. Desberdina dela baieztatzeko atal eta alor zenbait aztertu dira. Hortaz, Mutrikuko hizkeraren bariazioa landuko da lan honetan, baina azentuaren ikuspuntutik.

**Mutrikuko
azentuarekin
lotutako lan
honetan
lekukotasun
bakoitzak lau
ariketen bidez 41
hitz esan ditu.
Horrek esan nahi
du, 32
lekukotasun
badira guztira
1312 hitzeko
corpusa osatu
dela.**

2.1 Inkesta

Lanaren oinarri gisa inkesta desberdinak erabili dira. Alde batetik, bere baitan hiru ariketa jasotzen zituen inkesta bat erabili da; eta, bestetik, hitz markatuen aferaren gainean lan egiteko beste bat.

Lehenengo inkesta hiru ariketa desberdinez dago osatuta. Lehenik esan behar dena da, osatzen duten atalak zortzi irudirekin egin direla. Inkestako hitzak ondorengo hauek dira: *ura, sua, neska, aza, adarra, laguna, alarguna, arratoia*. Ondorengoak dira aurreikusitako ariketak: lehenengo ariketan forma singularra (*ura, sua, neskia, azia, adarra, laguna, alarguna, arratoya*) esateko aginduko zaio lekukoari; bigarren ariketan hitzaren forma plurala (*urak, suak, neskak, azak, adarrak, lagunak, alargunak, arratoyak*) esateko aginduko zaio lekukoari; eta, azkenik, hirugarrenean hitzari talde klitikoa (*ura da, sua da, neskia da, azia, da, adarra da, laguna da, alarguna da, arratoya da*) gehitzeko esango zaio lekukoari.

Bigarren inkestan, aldiz, helburuaz gain, erabiliko diren hitzak ere aldatu egin dira. Hitz markatua deituko zaio, hiztun komunitate edota inguru zehatz batean modu desberdin batean esan edo ahoskatzen den hitzari; hau da, hiztun batek lexikoan ikasi egin beharko du toki horretan hitz hori nola esaten den, nahiz eta arauen kontra joan. Adibidez, Ondarroan *mahaia* hitza markatua izango da. Forma singularrari (*máxe*) talde klitikoa gehituta (*máxe ra* eta ez **maxé ra*) ere 2] azentua ez da aldatzen, berez, aldatu beharko litzatekeenean. Adibidea eman eta gero, Mutrikuko kasurako erabili diren hitzak ondorengoak dira: *lehen-gusua, denda, bestea, egia, gona, belarria, aulkia, bekokia, taloa, mahaia, mahaia da, intxaurra, intxaurra da, txistua1, txistua 2, basoa 1, basoa 2*.

Euskarriak irudi eta hitzez osatuak daude hein handi batean, kasu honetarako galdetegia Hego Euskal Herrian erabili denez, irudi bakoitzari gaztelaniazko hitza jarri zaio.

Mutrikuko azentuarekin lotutako lan honetan lekukotasun bakoitzak lau ariketen bidez 41 hitz esan ditu. Horrek esan nahi du, 32 lekukotasun badira guztira 1312 hitzeko corpusa osatu dela.

2.2 Lagina

Laginari dagokionez, bi eremutan banatzen da herria: portua edo itsas aldea eta mendi edo baserri ingurua. Bizilekuaren barruan, Mutriku lurrez nahiko zabala denez, hiru ataletan banatu da baserri eremua: *mendebaldea (ondarroaldea edo ezkerria), erdialdea (Markina-Xemein aldea edo erdia), ekialdea (Debaldea edo eskuina)*. Kaleari dagokion zatia garbia da, izenak berak adierazten duelako, eta txikiena. Bestalde, historikoki


ere eremuen arteko banaketa garbia da. Gaur egun, herrian aldakortasunik egotekotan eremu horien zatiketarik datoz.

Belaunaldiei dagokionez, lan honetan lau adin talde hartu dira kontuan: 1940-1954; 1955-1969; 1970-1984; 1985-1999. Belaunaldi horiek lanari osotasuna ematen diete. Hau da, lekuko gazteago edo nagusiagoak erabili ahalko lirakeke, baina uste da, gaur egun, Mutrikuko biztanleriaren ehunekorik handiena adin talde horietan kontzentratzen dela.

Espero da adin talde nagusienean Mutrikuko hizkuntzaren aldaerarik zaharrenak gordetzea; eta belaunaldietan gazteagoak joan ahala, hizkuntzaren alde estandarizatu eta globalizatuak egotea. Belaunaldien banaketa modu hau erabili dutenek, esaterako Gamindek, *kreamailerazko banaketa* ere deitu izan diote.

Lagina erabiliko diren faktore soziolinguistikoaren arabera aukeratuak izan dira; hortaz, lagina estratifikatua da. Honekin esan nahi dena da, laginean lortu nahi ziren emaitzak kontuan hartuta izan direla hautatuak. Lekuko hautaketa sistema horrek emaitzak proportzionalak izatea ahalbidetu du. Modu horretara, lortutako emaitzak, edozein puntutatik begiratuta ere, ez dute inolako hutsunerik.

Funtsean, irudian ikusten den eskema hau sortu da (1.irudia):



2.3 Grabazioak

Datu bilketari dagokionez, grabaketak 2013-2014. ikasturteko ekaina eta uztaila artean egin dira Mutrikuko auzo eta bailara desberdinetan.

Grabaketak egitea eta lekukoekin batzea ez da modu periodikoan egin, hau da, ez da zerrenda osoa ordena batean jarraitu. Ahaltasun

pertsonala eta lekukoena kontuan hartuta, grabaketa hitzorduak lotzen joan dira bata bestearen atzetik.

Bestalde, grabaketak normalean ez dira asko luzatu. Hurrenez hurren, bakoitzak 10-15 minutu izan ditu ariketen azalpena eta harrera protokoloa kontatuta. Grabaketa bakoitzean egin diren pausuak normalean beti berdinak izan dira. Berdina izaten saiatzeak, nolabaiteko purutasuna ematen diola uste da.

Lehenik eta behin, ikertzailea grabaketa tokira agertzen da. Bigarrenik, lekukoarekin hurbiltasuna lortu eta gero, grabazioaren nondik norakoak azaltzen zaizkio; bestalde, atal hau harreraren barruan ere kokatu daiteke. Ondoren, azalpen guztiak emandakoan, grabaketa burutzen da. Azkenik, grabaketak irauten duen denbora pasa ostean, eskerrak eman eta grabaketa tokitik ateratzen da ikertzailea.

Grabaketak egiteko programa *Audacity* izan da. Programa hori 1999.urtean sortu zuten Dominic Mazzoni eta Roger Dannebengek, Cernegie Melloneko unibertsitatean, audio digitala lantzeko. Software librekoa da eta kalitate handiko soinuekin lan egiteko aukera ematen du.


Horrekin batera, *analisi* atalean ikusiko den bezala, *Praat* programa ere zehaztasunetarako erabili da. *Praat* programa Paul Boersma eta David Weenink sortu zuten, Amsterdameko unibertsitatean; funtsean, hizkuntzalaritzan hizkuntzaren analisi zientifikoa egiteko. Oraindik ere, 2014 urtean garatzen dabilizan tresna da *Praat*.

2.4 Eremu geografikoa

Mutriku Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) dagoen herri bat da. Gipuzkoako ipar-mendebaldeko bazterrean, Bizkaiarekin mugan, Debarrena eskualdekoa.

Lurrez alboko zenbait herri baino handiagoa da, eta lurraren bi esparruak erabiltzen ditu etekina ateratzeko, hau da, itsasoa eta mendia.

Alde batetik, Mutriku bere itsasertz eremuko golko txikietako baten dago finkatua eta herri gunea bera ere bai. Hori horrela izanda, portua eta herria bera nahiko batuta geratu dira, bien arteko banaketa linguistikoa ez desberdintzeraino; eta, bestetik, mendi aldeak portu eremuak ematen ez duen zabalkundea dauka.



2. irudia: Mutrikuko mapa geografikoa

Bi probintzien artean banatuak daude mendi eremuetako alde batzuk. 2. irudian marra gorriaren alboko eremuak Gipuzkoako Deba eta Mendaro; eta Bizkaiko Ondarroa, Berriatua, Markina-Xemein herriei dagozkie.

Esan bezala, herri horiek Mutrikuko auzoekin, guztira bederatzi, (hizkiekin identifikatuak) lotura zuzena izan dute. 2. irudian hizkiz: A. Galdonamendi; B. Mijoa; C. Mixkia; D. Artzain erreka; E. Ibiri; F. Olatz; G. Laranga; H. Olabarrieta; I. Astigarraga.

Lurrez zabala eta anitza den bezala, euskararen inguruan Zuazoren (2008) lanean Mutrikuko hizkera, Mendaro eta Elgoibarreko hizkerekin batera, tarteko hizkera bezala identifikatzen da. Tarteko hizkera esango genioke, eremu bat baino gehiagotik edaten duen aldaera bati; hortaz, bi ezaugarri dira tarteko izendatzeko baliagarriak. Alde batetik, Mutriku bere kokapen geografikoaren arabera Gipuzkoa eta Bizkaiaren artean dagoela; eta, bestetik, mendebaldeko euskara eta erdialdeko euskararen artean dagoela.

2.5 Datu azterketa

Datu bilketa egiteko lekuko bidez jasotako materialarekin bi datu base egin dira Microsoft Excel programan. Datu baseetako bat inkestako hitzen forma singularrak, pluralak eta klitikoak batzeko egin da; eta, beste datu basea hitz markatuen aferarako hitzak jasotzeko.

Datu horiek estatistikoki aztertuak izan dira. Datu estatistikoak lortzeko, SPSS programa erabili da, eta honetan X^2 khi karratua. Aldagai nominalak direnez, tresna hau erabiltzea ikusi da egokien. Honek erakusten du emaitzen artean *esanguratsutasunari edo probabilitateari* begiratu zaiola.

Balio horrek erakusten duena da, probabilitatea 0,05 baino txikiagoa ($p < 0,05$) bada, inguru horretan esanguratsua dela. Hori errespetatuko ez balitz edo hori baino handiagoa balitz, ez da esanguratsua izango.

SPSS programari dagokionez, oso erabilia da zientzia sozialetan eta enpresen merkatua aztertzeko garaian. 1968 urtean Norman H. Nie, C. Hadlai (Tex) Hull eta Dale H. Bent-ek sortu zuten produktu hau Chicagoko Unibertsitatean. 1970 urtean SPSS Inc. sortu zen. Lehenengo bertsioa 1969an sortu zen, baina gaur egun arte (azkena 2013an) 22 bertsio desberdin egin eta hobetu dira. Gaur egun, programaren izen gaurkotua IBM SPSS da.

3. ANALISIA


Analisia atala burutzeko, lekuko grabaketak egiteko erabili diren bi inkesten banaketa, hemen ere, errespetatu egingo da. Alde batetik, datuak azentuaren araua atera eta faktore soziolinguistikoak aztertzeko erabiliko dira; eta, bestetik, hitz markatuen afera argitzeko.


Emaitzek erakutsitakoa zehatzagoa izateko, zenbait kasutan *Praat* programatik lortutako espektrogramak erabiliko dira. Argibide horiek eman ondoren esan beharra dago, analisia atalean agertuko den corpusa 32 lekuko eta 1312 hitzekoa dela.

3.1 Arau orokorra


Mutrikuko azentuaren araua 2] da, eta guztiz errespetatzen da jasotako lekuko arabera. Irizpide berdina aldagai desberdinetan modu zehatz batean errespetatzen da: singularrean, pluralean eta klitikoetan. Ikerlan honetako galdetegian erabili diren hitz guztiekin araua betetzen da.

Praat programaren bidez lortutako espektrogramek erakutsiko dute aurretik arauaz esandakoa.





Gauzape fonetikoari dagokionez, azentua gauzatzen da silaba azentudunean tonu beherakada gertatzen delako. 7. irudian ikus daitekeen bezala, kurbak f0-ri eutsi egiten dio silaba azentuduna pasa arte (H*+ L).



Gauzape fonetikoaren bilakaera hau, mendebaldeko sisteman ere horrela gauzatzen da.

Bestalde, klitiko gehitzerakoan azentua mugitu egiten denez, horrek esan nahi du azentuaren eremua erroarena baino handiagoa dela.

Azentu arau orokorra hori dela ziurtatzeko, faktore soziolinguistikoek (adina, generoa eta bizilekua) erakutsitakoa ere ikusiko da.

3.1.1 Adina

Datuei erreparatuz, belaunaldi desberdinetan azentuaren araua guztiz errespetatzen dela ikusten da.


Datuetan agertzen den batasunaren arrazoiak askotarikoak izan daitezke; adibidez, estandarizazioa edota globalizazioa. Gaur egun, gizartea batuta eta kontaktuan dagoen garai hauetan, zailagoa da elkarrengandik bereiztea.

Adibidez, ondorengo bi irudiak (8 eta 9. Irudiak) adin tarte berekoak dira, baina bizitoki desberdinean bizi diren bi lekukoren irudiak dira.

Datuei erreparatuz, belaunaldi desberdinetan azentuaren araua guztiz errespetatzen dela ikusten da.

Datuetan agertzen den batasunaren arrazoiak askotarikoak izan daitezke; adibidez, estandarizazioa edota globalizazioa. Gaur egun, gizartea batuta eta kontaktuan dagoen garai hauetan, zailagoa da elkarrengandik bereiztea.

Datuei dagokienez, aurreikuspenetan desberdintasun handiak aurreikusten baziren ere, benetan ez dirudi alde handia dagoenik. Alegia, galdetegian erabili diren hitz eta ariketen baitan ez da bariaziorik aurkitu bizitokia ezaugarri soziolinguistiko modura hartuta.



Bi irudiak 20-40 adin taldean dauden bi emakumerenak dira; eta irudietako azentuen parametroen kurbak antzekoak dira, nahiz eta bizileku desberdinetakoak izan. Azentuaren aldakortasuna ikusteko, adin tartea ez dirudi esanguratsua denik. Datuetan desberdintasunak baino gehiago berdintasunak aurkitu dira.

3.1.2 Bizilekua

Datuei dagokienez, aurreikuspenetan desberdintasun handiak aurreikusten baziren ere, benetan ez dirudi alde handia dagoenik. Alegia, galdetegian erabili diren hitz eta ariketen baitan ez da bariaziorik aurkitu bizitokia ezaugarri soziolinguistiko modura hartuta.

3.1.3 Generoa

Generoaren datuak, bizileku eta adinaren antzekoak dira. Bai emakume eta baita gizonezkoetan ere, %100ean 2] azentuera erabiltzen dute. Horrek esan nahi du, generoaren alorrean, belaunaldiz belaunaldi eman diren aldaketak proportzionalki garatu direla.

Generoaren bidez banaketa egiteko aukeraketa hasieratikakoa izan zen, hor daude besteak beste, Tagliamonteren (2006) arrazoiak. Gainera, beste faktoreetan ikusi bezala, hemen ere lekukoaren arteko banaketa erdizkakoa izan da, hau da, 16 emakume eta 16 gizon.

Datuak interpretatzeko orduan, ez da generoaren arteko bereizketarik ikusi. Ezta ere, bizileku desberdinetako emakume eta gizonen artean. Hortaz, ez dago bariaziorik genero ezaugarria kontuan hartuta.

Horiek izan dira Mutrikuko azentu orokorraren inguruan faktore soziolinguistikoaren azterketa. Datuek erakutsi dutenez, 2] araua guztiz betetzen da lekukoaren artean, %100ean.

3.2 Hitz markatuak

Gaminderen (1998) lanean, bera izan baita Euskal Herriko azentu sistema gehien deskribapena egin duen autorea, Mutrikuko hizkerak hitz markaturik ez zuela ipintzen zuen. Hori horrela izanda, hitz markatuen gainean beste froga bat egitea erabaki zen. Gaminderen (1998) lanean *Kalea* eta *Ibiri* bailara bakarrik agertzen ziren; hori dela eta, lekuko gehiagorekin ikusi nahi izan da.

Hitz markatuen afera lantzeko, Gamindek Euskal Herri osoan orokortzat hartutako hitz markatuak erabili dira, izateko aukera gehiago izango zutelakoan. Metodologia atalean esan bezala, afera hau ikertzeko bigarren inkesta erabili da.

Inkesta horretan 17 hitz izan dira erabili direnak. Hortaz, inkesta horren bitartez, berez, 544 hitz lortu beharko lirateke, baina lekuko batzuek eskatzen zitzairen hitzaren bestelakoa edota beste aldaera bat eman dutenez, erabilitako hitz kopurua 483 hitzekoa izan da.

Erabilitako inkesta eta parte hartu duten lekukoaren arabera, datuek erakusten dute Mutrikuko hizkeran hitz markatuak edota azentu lexikala duten hitzak badaudela. Hau da, markatuak deitzen zaie azentuaren arau orokorraren aurka edo desberdina azentuatzen diren hitzei. Markatuen kopurua, hitz multzo horretatik %26,91ekoa izan da.

Datua hori izanda, kopuru orokorretik hitz markatu bakoitzaren portzentajea erakutsiko da; eta horrekin batera ezaugarri soziolinguistiko bakoitzari markatu bakoitzaren barruan dagokion portzentajea ere bai (1.taula).

Generoaren datuak, bizileku eta adinaren antzekoak dira. Bai emakume eta baita gizonezkoetan ere, %100ean 2] azentuera erabiltzen dute. Horrek esan nahi du, generoaren alorrean, belaunaldiz belaunaldi eman diren aldaketak proportzionalki garatu direla.

HITZA	ERANTZUNAK	MUTILA	NESKA	KALEA	EZKERRA	ESKUINA	ERDIA
BELARRIA	30	%50	%50	%26,6	%23,3	%26,6	%23,3
LEHENGUSUA	29	%48,27	%51,72	%27,58	%20,69	%27,58	%24,13
BEKOKIA	22	%40,90	%59,09	%22,72	%22,72	%36,36	%18,18
TALOA	19	%73,68	%26,31	%15,79	%31,57	%21,05	%31,57
EDALONTZIA	10	%60	%40	%10	%0	%50	%40
TXISTUA	7	%71,42	%28,57	%0	%14,28	%42,85	%42,85
GONA	3	%100	%0	%0	%0	%33,33	%66,66
OIHANA	3	%33,33	%66,66	%33,33	%0	%0	%66,66
EGIA	2	%100	%0	%0	%0	%50	%50
ADURRA	2	%50	%50	%50	%0	%0	%50
MAHAIA DA	1	%0	%100	%0	%0	%0	%100

1. taula: Hitz markatuen banaketa soziolinguistikoa

Hitz markatuak badaudela ikusi eta gero, faktore soziolinguistikoek artean aldakortasunak esanguratsuak ote diren ikusiko dira. Horretarako emandako erantzun posibleen eta faktore soziolinguistikoek arteko probabilitateak, SPSS programaren bidez lortu dira. Balio estatistikoak eta probabilitatea kontuan izateko, *khi karratua* (X^2) eragiketa erabili da; horrek esan nahi du faktoreen eta emaitzen arteko balioa esanguratsua izateko, probabilitatearen balioa 0,05 baino txikiagoa izan behar dela ($p < 0,05$).

Arau orokorra ateratzeko orduan, ikusi lez, hitz markatuak lantzerako orduan ere, 32 lekuko erabili dira; eta horiek Mutrikuko zonalde, adin eta genero desberdinetako lekukoak izan dira.

3.3.1 Adina

Adinaren ikuspuntutik begiratuta, lau talde desberdin egin dira eta multzo bakoitza zortzi lekukokoa da. Adin multzoak ondorengo urteei dagozkie:

BELAUNALDIA	ERANTZUNAK	MARKATUAK	EZ-MARKATUAK	PROBABILITATEA
1940-1954	114	%28,07	%71,92	P<0,676
1955-1969	121	%26,44	%73,55	
1970-1984	124	%22,58	%77,41	
1985-1999	124	%29,03	%70,96	

2. taula: Ezaugarri soziolinguistikoek (adina) emaitzak

Faktore soziolinguistiko honi dagokionez (2. taula), hitz markatuen emaitzarik onena %29,03koa da, baina beste adin taldeetako emaitzen aldean ez dago alde handirik. Emaitza onenetik txarreneko aldea %6,45ekoa da.

SPSS programatik lortutako datuak dio ezetz, adina faktore soziolinguistiko bezala ez dela esanguratsua, $p < 0,05$ baino handiago delako.

3.3.2 Bizilekua

Bizileku faktore soziolinguistiko lantzeko ere, Mutriku geografikoki lau zatitan banatu da; arau orokorra lortzeko banatu diren zati berak. Atal honen helburua ere, bizilekua esanguratsua den edo ez den ikustea da (3. taula).

BIZILEKUA	ERANTZUNAK	MARKATUA	EZ-MARKATUA	PROBABILITATEA
ERDIA	116	%23,27	%68,1	$p < 0,196$
ESKUINA	128	%29,68	%70,31	
EZKERRA	114	%21,92	%78,07	
KALEA	125	%22,4	%77,6	

3. taula: Ezaugarri soziolinguistikoen (bizilekua) emaitzak

SPSS programaren bidez lortutako datuek erakusten dutenez, hemen ere, hitz markatuak direnen artean ez dago desberdintasun handirik. Markatuetan kopururik handiena eskuin aldean (Deba aldean edo ekialdean) dago, %29,68. Hala ere, emaitza optimoenaren eta txarrenaren arteko aldea ez da horren handia, %7,76koa. Estatistikoki aldea ez da esanguratsua.

3.3.3 Generoa

Generoaren datuak, agian, beste faktore soziolinguistikoena baino errazago ikusiko da datuetan. Beste faktoreek ez bezala, generoak bi atal ditu; hori dela eta, alde baterako edo besterako joera ikusi beharko da (4.taula).

GENEROA	ERANTZUNAK	MARKATUA	EZ-MARKATUA	PROBABILITATEA
MUTILAK	235	%29,78	%70,21	$p < 0,069$
NESKAK	248	%23,38	%76,61	

4. taula: Ezaugarri soziolinguistikoen (generoa) emaitzak

Generoaren datuak erakusten dutenez, aldea txikia bada ere, mutilek markatu gehiago erabiltzen dituzte emakumezkoak baino. Mutilen kasuan hitz markatuen %a 29,78koa da; eta emakumezkoena, %23,38. Bien arteko aldea txikia da, %6,4koa; bestalde, SPSS programarentzako ere bien arteko aldea ez da esanguratsua.

Ezaugarri soziolinguistikoen azterketa egin eta gero, esan daitekeena da, SPSS programak erakutsitakoa aintzakotzat hartuta, Mutrikuko hitz markatuen aferan faktore soziolinguistikoen artean aldea egon arren, ez dela estatistikoki esanguratsua.

Aldagai sozialen inguruan uste zen adinak azentuan eragina izango zuela; aldiz, generoak ez. Datuek erakusten dute azentuan biek ez dutela inolako eraginik. Hirugarrena, aldagai geografikoak azentuan garrantzia zuela uste zen, eta datuek erakutsi dute ez dela horrela izan. Zonaldeen arabera ez da inolako desberdintasun nabarmenik ikusi ikerlanean.

4. ONDORIOAK

Atal honetan, lanean orokorrean esan direnak eta analisia atalean ikusitako emaitzen datuak emango dira jakitera. Ikerlan hau helburu eta helmuga batzuekin hasi zen, eta orain fruituak eman dituen ala ez ikusi behar da.

Horretarako, lanaren hasieran hiru motako hipotesiak egin ziren. Emaitzak jakin ostean, banaka-banaka ondorioak aterako dira.

Lehenengoa, azentu sistemari dagokionez, 2] azentuera errespetatzen zela esan zen, eta datuek erakusten dutenaren arabera, hipotesia bete egiten da. Horrez gain, hasiera batean lexikoan markaturik ez zegoela aurreikusi zen, baina datuak esaten dute, Gamindek (1998) esan zuenaren aurka, Mutrikun hitz markatuak egon badaudela, lortutako corpuseko hitzen %26,91.

Bigarrena, aldagai sozialen inguruan uste zen adinak azentuan eragina izango zuela; aldiz, generoak ez. Datuek erakusten dute azentuan biek ez dutela inolako eraginik. Hirugarrena, aldagai geografikoak azentuan garrantzia zuela uste zen, eta datuek erakutsi dute ez dela horrela izan. Zonaldeen arabera ez da inolako desberdintasun nabarmenik ikusi ikerlanean.

Hasieran jarri ziren hipotesien arabeko ondorioak horiek izan dira, baina horiekin batera aurrera begirako zenbait erronka ere sortu dira. Azentuaren bariazioa ikusteaz gain, azentuaren korrelato akustikoak atera beharko lirateke; azentua eta intonazioaren arteko erlazioa aztertzeko. Bestalde, pertzepzioaren aldetik zerbait egitea ere ondo egongo litzateke, alde horretatik jota zerbait atera daitekeela uste delako. Bukatzeko, hitz markatuen aferari beste ekinaldi bat egin beharko litzaioke.

Bukatzeko, eskerrak eman lanean buru belarri aritu den zuzendariari, Iñaki Gaminderi, bera gabe ikerlan honek ez lukeelako amaierarik eta heldulekurik izango. Baita lanean lekuko izan eta etxeko ateak ireki dituztenei ere. Eta, nola ez, motibazioaren garra piztuta mantentzeko txandak egin dituztenei. Mila esker guztioi! ●

BIBLIOGRAFIA

- Alvarez, J. L. (1984) *Euskal Azentuaz*, Elkar: Donostia.
- Andonegi, A. (1996) "Azentoa Mutrikun", Hizkuntza pedagogia ikastaroa, (argitaratugabea).
- Arrieta, J.A. (1974) "Un estudio sobre el habla vasca de Motrico", Universidad de Deusto: Bilbo.

- Aurrekoetxea, G. (2006) "Hizkuntza estandarraren eta dialektoen arteko bateratze joerak", *ASJU*, 40. (133-160).
- Aurrekoetxea, G. (2008) "Sociolinguistic variation in Dima Basque", *Euskalingua*-12.
- Aurrekoetxea, G. (2009) "Bariazio sinkronikoa aztertzeko metodologia(k)", *Lapurdum*, 13. (43-59).
- Aurrekoetxea, G. (2010b) "Sociolinguistic and Geolinguistic Variation in the Basque language", *Slavia Centralis* 2010-1, (88-100).
- Aurrekoetxea, G.; Gaminde, I.; Iglesias, A. (2011) "Variación prosódica en vasco basada en corpus: preguntas sí/no marcadas con la partícula *al*", EFE: Barcelona.
- Aurrekoetxea, G.; Gaminde, I.; Iglesias, A. eta Gandarias, L. (2013) "Prosodic Variation in the Basque Language: Stress Areas" in Ernestina Carrilho, E.; Magro, C. eta Álvarez, X., 2013, *Current Approaches to Limits and Areas in Dialectology*. Cambridge Scholars Publishing, Newcastle (247-266).
- Elordieta, G. (2008a) "Euskal azentu eta intonazioari buruzko ikerketa: status quaestionis". <<http://www.elebilab.com/documentos/archivos/publicaciones/Elordieta-Koldo%20Mitxelena%20Katedrarako.pdf>>.
- Gaminde, I. (1993) "Bizkaiko azentu-motei buruz", *Uztaro*-7.
- Gaminde, I. (1997): "Mendebaldeko azentuaz" in *Mendebalde Kultur Elkartea* (1997): *Mendebaldeko Euskara XX. mende goienera*. Bilbo. (175-191).
- Gaminde, I. (1998) *Euskaldunen azentuak*, Labayru ikastegia: Bilbo
- Gaminde, I. (2003): "Doinu azentudunaren pertzepzioaz", *Euskalingua*-3.
- Gaminde, I. (2007) "Intonazioaren ezaugarriak emozioen pertzepzioan lau hizkuntzatan", *Uztaro*-61.
- Gaminde, I. (2009): "Prosodiaren transmisioaz eta beronen azterketaz" in *Mendebalde Kultura Alkartea: Transmisioa eta Erabilera: XIII. Jardunaldiak*. Bilbo, (73-111).
- Gaminde, I. (2011) "Noraka Euskal Azentuak?" in Aurrekoetxea, G. eta Gaminde, I. (edi.) *Prosodiaz eta Hezkuntzaz I. Jardunaldiak/I. Jornadas sobre Prosodia y Educación*, UPV-EHU.
- Hualde, J. I. (1990) "Euskal azentuaren inguruan", *ASJU*, 24. (699-718)
- Hualde, J.I. (1997) *Euskararen azentuak*. EHU eta GFA: Bilbo, Donostia. *ASJU*, gehigarriak, 42.

- Hualde, J. I.; Aramaio, I. (2002) "Accentual variation and convergence in northeastern Bizkaian Basque", *Studies in the Linguistic Sciences: Department of linguistics university of Illinois at Urbana-Champaign*.
- Hualde, J. I. (2006) "Estado actual en las investigaciones sobre la acentuación en lengua vasca", 150. *Oihenart*, 21, (149-177).
- Hyman, L. M. (2009) "How (not) to do phonological typology: the case of pitch-accent", *University of California: Berkeley*.
- Martin de Vidales, I. (2005) "Azentu morfologikoaren zenbait jokaera eta adibide mendebaldeko euskaran", *Mendebalde: Bilbo*.
- Sarasua, J. (2013) *Hiztunpolisa*, Pamiela: Iruñea.
- Soziolinguistika Klusterra (2014) "Datu soziolinguistikoen bilduma. Mutriku 1986-2011", *Martin Ugalde parkea: Andoain*.
- Tagliamonte, S. A. (2006) *Analysing Sociolinguistic Variation*, Cambridge: New York.
- Unamuno L.; Ensunza A.; Ormaetxea J. L.; Iglesias A.; Aurrekoetxea G. (2012) "Euskararen bariazio sintaktikoaz lehen datuak" *Euskalingua-20*.
- Zuazo, K. (2008) *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*, Elkar: Donostia.